

# Kristau elkarteak eraberrituz


Zonaldeko bisiten emaitzak



Donostiako  
Elizbarrutia

Diócesis de  
San Sebastián

2024ko  
Azaroa - Abendua



# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>2. ERABERRITZE PASTORAL ETA MISIOLARIAREN PROZESUAREN IBILBIDEA .....</b>	<b>5</b>
<b>3. ERRABERRITZE PASTORAL ETA MISIOLARIRAKO LAU GAKO ..</b>	<b>7</b>
<b>4. ELIZBARRUTIKO AMIA AZTERKETA .....</b>	<b>15</b>

# 1.

## SARRERA

Gure elizbarrutia Eraberritze Pastoral eta Misiolaria helburu duen prozesu batean lanean ari da. Hau kontuan izanik, hainbat pauso eman ditugu orain artean:

- Prozesua martxan jartzeko elizbarruti mailako topaketa, 2024ko otsailaren 24an. 340 lagunetik gora eman zuten izena.
- Parrokietan galdeketa kuantitatibo bat betetzea (204 parrokietatik, txiki gutxi batzuk gelditu dira bete gabe).
- Elizbarrutian barrena, kristau elkarteei bisita: 37 bisita egin dira. Artziprestaldeak kontuan hartzen baditugu, era honetara egin dira bisitak: Beterrin 7, Urola Kostan 5, Goierrin 6, Mendebalden 9, Ekialden 2 eta Donostian 8. Bisita hauetako bakoitzera Eraberritze Pastoral eta Misiolarirako batzordeko kideak joan dira. Guztira 1.200 pertsonak hartu dute parte. Bisita hauetan Gotzainak, Bikario Nagusiak, Idazkari Nagusiak, artzipresteek, Era-



berritze Pastoral eta Misiolarirako batzordean dauden hainbat apaizek eta laikok hartu dute parte.

Dokumentu honetan, datu kualitatibotan jasotako informazioa jartzen dugu zuen eskuetan, azken hauek AMIA analisiaren arabera aurkezten ditugularik (ahuldadeak, mehatxuak, indarguneak, aukerak).

Hurrengo pausoa, zonalde bakoitzean hasierako ekipo bat osatzea izango da, Eraberritze Pastoral eta Misiolariaren inguruan tokian-tokian gogoeta egin eta erabakiak hartzen joateko.

Donostia, 2024ko azaroa

## 2. ERABERRITZE PASTORAL ETA MISIOLARIAREN PROZESUAREN IBILBIDEA

2024

Otsailean

### 1. Animatzeko eta sentiberatzeko

Elkarketa elizbarruti mailan: *otsailaren 24an*

Apiriletik  
Ekainera

### 2. Errealitatearen analisisa

2.1. Galdeketa kuantitatiboa parrokietan.

*martxoa eta maiatza artean*

2.2. Bailaretan bisitak: animatzeko eta errealitatea kualitatiboki ezagutzeko.

*apirila eta ekaina bitartean.*

Azarotik  
Abendura

### 3. Eskualde-artziprestaldean mapa egiten hasteko

3.1. Bailaretan bisitak: animatzeko, errealitatearen analisisa egitean jasotakoaren berri emateko eta eraberritze pastoral eta misiolariaren gakoak aurkezteko.

*azaroa eta abendua bitartean.*



2025

Urtarrilean

3.2. Hasierako taldeak eratu.

*2024ko abenduan eta 2025eko urtarrilean.*

Urtarriletik  
Ekainera

**4. Hasierako taldeetan gogoan izateko irizpi-  
deak aurkeztu eta bereizmen-lana:**

4.1. Eraberritze pastoralak eta misiolaria: es-  
piritualtasuna eta erantzunkidetasuna  
([Espiritualitatea](#))

4.2. Eraketa pastoralak: parrokiak, pastoral ba-  
rrutia, artziprestaldea ([Elkartea](#))

4.3. Ardurak eta ministeritza laikalak ([Elkartea](#))

4.4. Pastoral biziak: ebanjelizatze-lana, litur-  
gia eta karitate-zerbitzua ([Misioa](#))

4.5. Ondarea eta ekonomiaren kudeaketa  
([Baliabideak](#))

*urtarrila eta ekaina bitartean*

*\*\*Elizbarrutiko topaketa: martxoaren 1ean*

Urria

**5. Mapen eta talde arduradunen definizioa:  
Pastoral Egitasmoa lantzea**

*urritik aurrera*

2024ko apirilak-ekaina  
bitartean egindako  
ikustaldien ondorio.

# 3.

## ERABERRITZE PASTORAL ETA MISIOLARIRAKO LAU GAKO

Elizbarrutian barna egindako AMIA delako ikerketek emandakoaren sintesia egin ondoren, eraberritze pastoral eta misiolarirako kontuan izan beharreko lau gako aurkezten ditugu. Hona hemen gakoak:

*Espiritualtasuna, elkarteak, misioa, eta baliabideak.*



# Espiritualtasuna

*Espiritualtasuna aipatzen dugunean, Jesusen Ebanjelioa nork bere egitea esan nahi dugu. Sinesmena, Ebanjelioa, Eukaristia, otoitza, eta maitasuna espiritualtasuna osatzen duten elementuak dira.*

Bisitatu ditugun eskualdeetan garbi ikusi dugu eraberritze espiritualaren beharra.

Horretako, Espirituaren kemena behar dugu geurekin: sinesmena eta Ebanjelioa ditugu kemen hori. Geurekin dugu Jauna eta horrek itxaropenez betetzen gaitu. Gaurko gizarteari eskaini beharreko mezu eta eduki garrantzitsua dugu.

Espiritualtasun-eske handia dagoela ikusten da, horixe baita kristau-nortasun argia eta sendoaren oinarria, noizten ari garen kontrako egoerari aurre egiteko. Otoitz-talde eta jarduera ezberdinak aurkitu ditugu (Jainkoaren Hitzak irakurtzeko taldeak, Jesusen taldeak, Eukaristia gurtzeko taldeak, Emaus erretiroak, isiltasun-esperientziak...). Eskera ez ezik, prestakuntza espiritual handiagoaren beharra ere ikusi dugu.

Eraberritze-prozesu honek berak lagun diezaguke une honetan garrantzitsuen zer den ikusten eta horretan zentratzen.





# Elkartea

*Elkartea diogunean, Jesu Kristoren izenean bildutako gizan-emakumeez ari gara, haren Hitza entzuteko, sinesmena ospatzeko, elkar-maitasuna eta elkartasuna bizitzeko asmoz, ingurumarian Ebanjelioa hots egiteko misioa betetzeko asmoz.*

Kristau-elkartearen ahultasunak zerikusi handia du bere kideen hauskortasunarekin. Ikusten dugu gure elkarteetan subjektu pastoral hori ahuldua dagoela: adinean aurrera egina, ordezkorik eza, gazterik eza... Batzuetan zailtasunak ditugu nozitzen ari garen egoera hau aintzat hartzeko ere. Horrek guztiak poza sustatu ordez, tristura azaltzera eramán gaitzake.

Ahul izanik ere, parrokia askotan mugimendua dago, pertsona asko baitago inplikatur, leialtasunez, erantzunkide izanez, elkar zainduz; horietako asko adinean aurrera doa, baina konpromiso eta zerbitzu goraiagarria egiten dute, eta testigantza baliotsua eskaintzen. Beren kristau elkartearekin eta beren misioarekin oso identifikatuta dauden laiko taldeak daude, famili bereko kide pozez sentitzen direnak. Giro ona dago elkarteetan eta garrantzi handia du horien arteko harremanak. Herrietako eta auzoetako kristau-elkar-teak erreferentzia baikorra dira. Karisma berriak pizten eta talde berriak sortzen ari dira, sormena indarrean dagoela erakutsiz.



Aipatu beharra dugu berriz ere emakumeak direla horietako gehienak. Kontuan hartu beharrekoa da hori eta hausnartu beharrekoa. Gizartean emakumeak duen eragina egokiera da gure elkarteentzat ere.

Migranteen bizitza ere kontuan izatekoa da, batzuetan bertan ditugulako, beste batzuetan bertan ez ditugulako. Gure parrokiaren bizitzan parte hartzeko gogoz etortzen dira. Zenbait tokitan talde sinodalak eratu dituzte, itxaropena eta sentiberatasuna suspertuz. Era baikorrean ikusten dira elizbarruti mailan antolatutako elkarketak eta bilerak.

## Misioa

*Gure kristau-elkarreei arreta  
pastorala eskaintzea eta  
gaurko gizartean Ebanjelioa  
hots egitea da gure misioa.*

Ez da erraza gaur egun fedea eta kultura arteko elkarrizketa. Baztertze-kulturak eta mundutar bihurtzeak ahuldu egingen dute misioa. Axolagabekeria eta Elizaren irudi gaiztotua oztopo da ebanjelizatze-lanerako. Eta horrek beldurra sortzen du eta lotsa pizten eliz elkartean testigantza egiteko eta ebanjelizatze orduan.

Hala eta guztiz ere, gure garaiko ezaugarri pastoral eta sozialak gerta daitezke egokiera ebanjelizatze berriari eki-



teko. Eraberritze espiritualak anima ditzake gure elkarteak fedearen egiazko testigu izatera. Gizartea han anitza izatea gerta dakiguke egokiera elkarrizketarako eta elkarketarako: ekumenismo eta erlijio arteko elkarrizketarako. Espirituaren laguntzaz, eraiki ditzakegu zubiak gure gizartean, herrian nahiz auzoan izan daitezkeen gainerako elkarteekin lankide izateko nahiz ekintzetan eskuhartzeko. Elizaren Doktrina Sozialak argi egin dezake gizartea kezkatzen duten gai askotan.

Ezin zaigu ahaztu gure herrietan eta gizarteko alor ezberdinetan bertan modu esanguratsuan dagoela Eliza. Gizartean era askotara eta konprometitua egonez, gai da Eliza taldeekin elkarlanean aritzeko, baita eliz elkarteko ez direnekin ere. Eliz elkarte txikiak erreferentzia-puntu baikor gerta daitezke bere ingurukoentzat, harrera ona egiten dakielako, hita-ospakizunak arreta handiz egiten dituelako... Zerbitzu pastoralak egokiak dira, oparoak eta dohakoak.

Zalantzarik gabe, gizarteak aitortzen du Eliza erantzun ona ematen ari dela behartsuen egoerari begira. Herri-erlijiotasunak, ohitura erlijiosoek, eragin pastoral eta ebanjelizatzailea izan dezakete: erromeria, jai, bederatziurren, ermitetan nahiz elizetan Ama Birjinaren omenezko ospakizunek eta abar.



## Baliabideak

*Gure elkarteekiko arreta eta horiek misio pastoral eta ebanjelizatzailea eraberritzeko osagaiak, bizkorgarriak, ekitaldiak ditugu baliabideak.*

Aurrenekoa eta ezinbestekoa honako hau da: Ebanjelioaren balioaz eta Jesu Kristoganako sinesmenaren balioaz kontzientziatuak egotea eta espiritu-bizitza zaintzea. Lankideak asko ditugu, baina garai berri honetan aurrera egingo duten pastoralgileen beharra dugu.


Parrokiarik indartsuenek lagundu egin beharko diete bere baliabideez elkarte pobreagoei. Kristau-elkarte ezberdinen arteko sinergia eragingarri izan daiteke denentzat.


Elkarketa eta elkarri entzute kultura bultzatu beharrean gara. Garrantzitsua da Espirituak gure Elizari zer eskatzen dion antzematen eta bereizten jakitea, eta Espiritua gure artean ari deneko seinaleak irakurtzen jakitea: gure elkar-teen egiazko beharrak, gure lurraldeko eta gure jendearen beharrak irakurtzen jakitea, alegia. Frantzisko Aita Santuaren esanetan “ideia baino garrantzitsuago da errealitatea” (*Evangelii gaudium*, 231-233)

Gure eliz eraikinetan dugun ondare artistiko, kultural eta erlijiosoa ere egokiera gerta dakiguke edertasuna aurkitze-



ko eta, horren bidez, esperientzia erlijiosoa ahalbidetzeko eta otoitz- eta isiltasun-guneak eratzeko. Gure jardueraren erdian jarri beharra dugu elkartean egin behar duen ebanjelizatze eta misio-lana, egiturak eta ondasunak baliabide gerta daitezzen eta ez zama, gure gizartean, Ebanjelioa eskaintzekoan.





4.

## ELIZBARRUTIKO AMIA AZTERKETA

Analisi hau egin ahal izateko, 37 bisita egin ditugu Elizbarrutian zehar eta guztira 1.200 pertsonen hartu dute parte. Ezberdintasun handiko elkarteekin aurkitu gara. Pastoralgileen kopurua, adina, elkartearen tamaina, sentsibilitate desberdinak... Hona hemen laburpen gisa AMIAren emaitza.



# Ahuldadeak

## Espiritualitatea

1. **Espiritualtasunaren sakonketa** falta. Ideologia eta Ebanjelioa nahasten dira. Bihotz berritzearen beharra.
2. Pozaren ordez, **tristura transmititzea**. Beldurra eta lotsa testigantza emateko.

## Elkarteak

3. **Elkarteak gero eta ahulagoak**: kopurua txikitzen, adin handikoak, errelebo falta, pastoralgile eta apaiz urritasuna, elkarte-sena indartu beharra, itzaropen falta eta nekea.
4. **Heziketa** falta maila ezberdinetan: kristau sarbidean, liturgian, sinodaltasunean, Biblian, teologian...
5. **Bizitzen ari garen errealitatea onartzeko zailtasunak**.
6. **Batasun falta**: karisma eta espiritualtasun ezberdinen artean bizikidetzaz izateko zailtasunak, teologia eta pastoralara ulertzeko modu ezberdinak, kuriarekiko hoztasuna, kristau elkarten polarizazioa, elkar ezagutza falta, talde batzuk bere baitan itxiak egotea... Batasun faltak ireki dituen zauriak sendatzeko beharra.
7. **Eliza Sinodal bat izatera iristeko zailtasunak**: klerikalismoa, erantzunkidetasun auala...
8. **Caritasek** parrokia batzuetan duen integrazio ahula.
9. **Herri txikien egoera** pastoralara: parrokien zentralizazioak dakarkien arriskua...

## Misioa

10. **Fedearen transmisioa eten** egin da gure Elizan eta gizartean. Zailtasunak haurrei eta gazteei fedea transmi-





titzeko. Erabiltzen dugun hizkuntza askotan arrotz gertatzen zaie. Fede heziketarako prozesuak berrikusi behar dira.

11. **Harrera ona egiteko gaitasuna galduz doa** gure kristau elkarteen egoeragatik. Eliza asko itxirik dauzkagu.
12. **Ebanjelizazio-eskaintzaren ahultasuna:** ez da erakargarria gertatzen, gaurko egoerara egokitzeko zailtasunak, elkarte proiektu falta...
13. **Migrantei oraindik egiten diegun harrera eta beraien integrazio maila**
14. **Igandeko Eukaristiak** kristau elkarte guztietan **ospatzeko egokiera eza.**
15. **Fedearen inkulturaziorako zailtasuna:** hizkuntza, emakumearen lekua Elizan... .

## Baliabideak

16. **Parrokien arteko elkarlana** ahuldua. Antolaketa mailan aldaketa beharra.
17. **Antolaketa aldaketen aurrean erresistentzia.**
18. **Komunikazio maila** ahula: barne eta kanpo komunikazioa. Sare sozialetan presentzia txikia. Teknologia berrien erabilera eskasa gure kristau elkarteetan.
19. **Ekonomiaren eta ondarearen egoera:** gastuak gora doaz eta diru-sarrerak berriz, behera. Kudeaketa mailan aldaketa eta baliabide berriak aurkitzeko beharra.
20. **Euskararen erabilera** elizkizunetan eta pastoraltzan urrituz joatea.
21. Elizbarrutian **apaiz gutxi** izatea. Honek apaizen gehiegi-zko nekea ekar dezake.
22. **Elizbarrutiaren egitura** zama gerta daiteke: parrokieta IFKren aniztasunak kudeaketa zailtzen du.



# Indarrak

## Espiritualitatea

1. **Espirituaren indarra:** fedea eta Ebanjelioa dira gure indarra. Jauna gurekin da, eta honek ematen digu itxaropena. Mezu eta eduki garrantzitsua horixe dugu gaurko gizarteari eskaintzeko.
2. **Otoitz talde eta** esperientzia desberdinak: Jainkoaren Hitzaren irakurketako taldeak, Jesusen taldeak, Jauna gurtzeko taldeak, isiltasunaren esperientzia...
3. **Eraberrikuntza** prozesu berak **funtsezkoa den horretan zentratzen lagun diezaguke.**

## Elkartea

4. **Inplikaturako pertsonak:** leialtasuna, erantzunkidetasuna, elkar zaintza, adineko pertsonen eta pastoralgileen esperientzia zabala, testigutza, konpromisoa, zerbitzu-jarrera, kritika konstruktiboa, parroketako kuoten sistema... Elkarteetako giro ona eta harremanen garrantzia. Emakumearen presentzia garrantzitsua.
5. **Jende asko dago formazioa jasotzeko gogoz.**
6. **Migranteen** geroz eta **presentzia** handiagoa gure elkarteetan.
7. **Sinodoa dela eta sortu diren taldeak:** entzute eta partehartzearen dinamika indartuaz eta espiritu kritiko bat landuaz. Gotzaindegiak elkarteei entzuteko aukera.
8. **Apaizak kristau elkartearengan konfidantza izatea** eta askatasuna ematea lanerako.



## Misioa

9. **Elizaren presentzia herrietan eta gizarteko arlo ezberdinetan:** elkarteen presentzia anitza eta konprometitua, sarean lan egiteko aukera, Kristau Eskolaren presentzia zabala... Mugikortasunerako erraztasuna Elizbarrutiaren tamainagatik.
10. **Herrietako eta auzoetako kristau elkarteak erreferentzia positibo** dira. Harrera oneko elkarteak izatea, hiletak modu txukunean antolatzea.
11. **Behartsuen aurrean Elizak ematen duen erantzuna:** Caritasek erakunde publiko eta gizartearen aurrean duen irudi ona, gaixoen eta espetxeratuen arreta. Egitura eraginkorra Elizbarruti guztian. Artziprestalde batzuetan, espetxe pastoraltzaren indarra eta beste erakunde batzuekin egiten den elkarlana.
12. **Gure zerbitzuen doakotasuna:** gure eskaintza eskuzabala eta ona da.
13. **Hiletan** inguruko eskaintza pastoral aberatsa herrietan
14. **Herri erlijiotasunaren indarra:** erromeria eta festetan, bederatziurrenetan, Ama Birjinak dituzten ermitetako ospakizunetan...

## Baliabideak

15. **Azpiegitura sendoa:** lokal, areto, eta gelen eskaintza zabala Elizbarrutian zehar.
16. **Kristau elkarteen arteko elkarlana.**
17. **Elizbarruti mailako elkarketa eta batzarrak.**



# Mehatxuak

## Espiritualitatea

1. **Elizaren mundutartzea:** tentsio kulturalaren neurrira egokitzea gure Eliza, Ebanjelioaren baloreak eta erakutsiak mundutartuz.

## Elkartea

2. **Gizarte sekularizatu batek eragiten duen presioa gure kristau elkarteetan.**
3. **Berehalakotasunaren kultura:** ebanjelizatzeak ereitea dakar eta honek bere denbora behar du. Itxaroten jakitearen garrantzia.
4. Gizartearen zahartzea, **jaiotze-tasa txikia.**

## Misioa

5. **Gizarteak fedearikiko eta Elizarekiko duen indiferentzia:** Elizaren eta bere espiritualtasunaren ezagutza falta, Elizak gizarte-doktrinan duen proposamenaren ezagutza falta, gazteek Eliza urrutiko errealitatetzat hartzea... Sakramentuen eskabidea asko jaitsi da.
6. Gizarteak **Elizarekiko duen irudi negatiboa:** komunikabideek Elizarekiko duten jarrera, emakumearen egoera Elizan, sexualitatearen heziketa, pederastiaren gaia, partidu politiko batzuek egiten duten fedearen eta Eliza-



ren erabilera, apostasia-kanpainak, Eliza zatitua ikus-  
teak...

7. **Fede eta kulturaren arteko etena** (indibidualismoa, moral sexuala, nartzisismoa, konpromiso falta, familia-  
ren krisia eta gutxiestea...). Bien arteko tartea gero eta  
handiagoa da. Kristau izatea askotan kontrakulturala da  
eta hau onartzea eta bizitzea zailagoa gertatzen da ne-  
rabezaroan eta gaztaroan.
8. **Baztertzeko kultura**: bakea, bizitza, giza duhintasuna,  
migranteak, ekologia eta abarren aurkakoa.
9. **Gizartearen ahultasun psikologikoa** maila ezberdine-  
tan: haur, nerabe, gazte eta helduetan.

## Baliabideak

10. **Erabilerarik gabe dauden eliz ondasunen** aurrean gi-  
zarteak duen ikuspegi kritikoa.
11. **Erakunde batzuekin harreman zaila**: burokratizazioa,  
lege berrien sorrera...



# Aukerak

## Espiritualitatea

1. **Espiritualtasunaren egarria** dago, Egiaren eta Maitasunaren egarria. Gizartea bizitzen ari den krisi existentziala egokiera da erantzuna eskaini ahal izateko.
2. **Elizaren baitan jaio den sinodalidadearen sentsibiltate berria.**

## Elkartea

3. **Etorrinen etorrera** gero eta handiagoa: gure kristau elkarteetan parte hartzeko gogoz etortzen da horietako asko.
4. **Elizako karisma ezberdinak** eta sortu diren **talde berriak**, kreatibitateari eta sormenari leku eginez.
5. **Emakumeak Elizan** duen paperaren inguruan **hausnarketa** egitea. Emakumeak gizartean izan duen bultzada egokiera da gure elkarteentzat ere.

## Misioa

6. Gizarteak gure tenpluen edertasuna baloratzen du eta bisitatzen ditu. Otoiz-leku eta isilune-lekutzat ere baloratzen dira gure herrietan.
7. Gizartearen aniztasuna egokiera gerta daiteke elkarriketa eta topaketarako: ekumenismoa eta erlijioen arteko elkarriketa. Errealitate ezberdinetara gerturatzea eta entzutea. Ezberdinen topagune gera (adinagatik, kulturagatik, jatorriagatik, bizi-egoeragatik...).



8. **Gizartean dauden behar berriei erantzuteko aukera:** herritarrei eta batik bat gazteei entzunez eta azterketa sakona eginaz.
9. **Gizarteak Elizarekiko duen ezjakintasunak** egokiera ezberdinak zabaltzen dizkigu. Ebanjelizatze berriaren garaia dugu.
10. Elizak badu **gizartearentzat interesgarri izan daitekeen gai ugari** eskaini ahal izateko: Doktrina Soziala, Caritas, doluaren inguruan bide laguntza (beilatoki eta hilerrietako zerbitzua), arreta pastoralak zaharren egoitzetan. Proposamen ezberdinak antolatzeko egokiera du Elizak.
11. **Elizara gerturatzen den pertsona asko aurreiritzirik gabe** gerturatzen da: katekesiko haurrak eta familiak... Honek fedearen transmisioa erraztu dezake.
12. **Ingurune euskaldunetan Ebanjelioa** zabaltzea.
13. **Gizartean egiazko erreferentzia gabeziaren aurrean kristau elkarteek testigu izateko aukera** dute.

## Baliabideak

14. **Komunikabideak eta teknologia berrien erabilera:** sare sozialak, hedabide desberdinak... Komunikabideekin lankidetzaz zabalagoa izan dezakegu.
15. **Herriko gainontzeko elkarte eta errealitateen artean zubiak eraiki eta elkarlana** bultzatu: parrokiako lokalak, herri txikietan herrietako ekintzak egiteko utzi daitezke, proiektu amankomunak bultzatu, herriko ekintzetan parte hartu...
16. **Datozen urteetan jubilatuko diren pertsonak** boluntario izatera animatu ditzakegu.

